aroa

euskara indarberritzeko
eta euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategikoa

Seguran euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa

2024-2034

SEGURAKO UDALA

UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

AROA plana

Segura euskararen arnasgunea da; hau da, herritarren %80 baino gehiago euskaldunak dira, eta oro har, eroso eta normaltasun osoz erabiltzen da euskara egunerokoan. Dena dela, azken urteetan gero eta kezka handiagoa ari da sortzen euskararen erabilera pixkanaka jaisten ari dela eta.

2024an gaia herriratu eta datozen urteetarako plan estrategikoa diseinatzeko lanketa abiatu genuen Udalak eta UEMAk elkarlanean. Horretarako bi parte hartze saio antolatu genituen herritarrekin.

Txosten txiki hau **plan estrategikoaren laburpena da**. Hauxe jaso dugu bertan:

- Segurako euskararen egoerari buruzko diagnostikoa
- Parte-hartze saioetako lanketa
- Planerako aurreikusitako ekintzak

1. Segurako datu soziolinguistikoak

Gaur gaurkoz, azken datuen (2021) arabera, segurarren % 85 da euskalduna; % 8 ia euskalduna ulertzen du, baina ez daki ondo hitz egiten); eta % 11,7 erdalduna.

Datuen bilakaera aintzat hartuz gero, azken 40 urteotan euskararen ezagutza gutxi-asko mantendu egin dela antzeman daiteke. Euskararik ulertzen ez duten herritarren proportzioa, aldiz, zertxobait gutxitu da.





Beste datu batzuk aztertzen baditugu, hiztunen tipologia aldatzen ari dela ikusiko dugu. Izan ere, nabarmen jaitsi da euskara lehen hizkuntza moduan ikasi duten segurarren portzentajea, eta etxean batez ere euskaraz aritzen diren herritarrak ere gero eta gutxiago dira.

Lehen hizkuntzaren bilakaera



Etxeko hizkuntzen erabileraren bilakaera



Azkenik, kale-erabilerari dagokionez, duela 4 urteko neurketan, kaleko elkarrizketen % 91,3 neurtu ziren euskaraz Seguran. Azken bi neurketetako datuak alderatuz gero, kalean euskararen erabilera 1,6 puntu igo da, baina deigarria da haurren artean 6,3 puntu egin duela behera.

Segurako hizkuntzen kale-erabilera neurketak, bilakaera



2. Herritarren iritzia euskarak duen egoerari buruz

Parte-hartze saioak egin aurretik, segurarren iritzia jaso da galdetegi bidez. 49 pertsonak erantzun dute galdetegia. Erdiak baino gehiagok (% 57k) uste du azken urteotan euskararen erabilerak behera egin duela Seguran. Zergatiak azaltzerakoan, hauexek izan dira gehien agertutako erantzunak:

Haurrak gero eta gehiago ari dira gaztelaniaz. Lehenago Segurako umeek ez zekiten erdaraz, eta orain kalean eta parkeetan erdara asko entzuten da.	Helduen artean ere gaztelaniazko joera antzeman da: guraso batzuen artean, herri erdaldunagoetatik etorri diren herritarren artean...	Ostalaritzan izan diren aldaketengatik, momentu honetan ez dago bermatuta euskarazko arreta.
Kontzientziazioan hutsuneak: utzikeria, garrantzirik ez ematea euskarari, eskolaren esku uzteko joera, lehengo diskurtsoek ez dute balio.	Euskararen kalitateari buruzko kezka; traketsago hitz egiten da.	Ikus-entzunezkoetan eskaintza txikia, sare sozialak, musika kontsumoan aldaketak...

- Haurren erabilera izan da, nabarmen, gehien aipatu den arrazoia. 49 lagunetik 14k azaldu dute gai horrekiko ardura.

Azkenik, galdetu zaie euskara zein arlotan ikusten duten indartsuen eta ahulen Seguran. Hauexek izan dira erantzunak:

Seguran, non ikusten duzu euskararen erabilera indartsuen?



Eta ahulen?



3. Parte hartze saioetako lanketa

Parte hartze saioetan, herriko egoeraren diagnostikoa partekatu eta hutsune nagusienak zein eremutan dauden hausnartu dute herritarrek.

Lehen saioan, 2034rako lau erronka nagusi adostu ditugu:

1) Haur eta nerabeen hizkuntza ohituretan eragitea (horren baitan gurasoen rola eta pantailen eragina aintzat hartu beharrekoak izango dira).

2) Ostalaritzan, merkataritzan eta bizilagun berriekin harremanak euskaraz izateko pausoak ematea.

3) Euskaldunen ahalduntzean eta aktibazioan eragitea.

4) Herriko eragileen artean harremana indartzea, elkarlana sustatzea eta sinergiak sortzea.

Bigarren parte hartze saioan, erronka horiei erantzuteko ekarpenak jaso dira. Hauexek izan dira:

1. erronka: Haur eta nerabeen hizkuntza-ohituretan eragitea	
ZER EGIN DEZAKEGU?	**NORK/NOLA**
• Sistematikoki eskolako irakasleek jasotzen duten formazio soziolinguistikoa beste eragile batzuetara zabaldu: - Jangelako langileak - Musika eskolako irakasleak - Haurrekin harremana duten herriko beste eragile eta elkarteak	UEMAk, kronograma bat egingo genuke urteka
• Gurasoentzako saioak antolatu.	UEMAk. Helduak euskarara erakartzeko gakoa izan daiteke seme-alabengan fokua jartzea, beraiek euskalduntzearen garrantziaz jabe daitezen.

• Gurasoei informazioa bidaltzea, kultur kontsumoari buruzkoa. Euskarazko ikus-entzunezkoen baliabideen berri eman.	Guraso elkartearen bidez Eskolaren bidez, guraso bileretan Liburutegiko sare sozialak
Talde eragilean parte-hartze saioen ondoren adostutakoak	
• Guraso elkartearekin lanketa egin, familientzako saioak antolatzeaz gain, elkartean euskara arloa berariaz lantzeko proposamena egiteko.	Udala eta UEMA

2. erronka: Ostalaritzan, merkataritzan eta bizilagun berriekin harremanak euskaraz izateko pausoak ematea	
ZER EGIN DEZAKEGU?	**NORK / NOLA**
• Egun egiten den harreraz gain, kanpoko jatorriko herritarrak nondik datozen aztertu daiteke, multzo nagusienak aztertu, eta bakoitzarekin nola jokatu landu.	*Kontuan izan herritar berriak ez daudela leku denetan (musika eskolan ez daude, elkarteetan ez daude…) Oro har, elkarteetan kide berriak batzea zaila izaten da.
• Euskaldunak ahaldundu euskara eskaintzeko, elkarrizketa elebidunak sustatu eta normalizatzeko.	Sentsibilizazioan eragin. 2024an, esaterako, Euskararen Egunerako bideoa grabatu da Seguran euskara ikasten dabiltzanekin.
Talde eragilean parte-hartze saioen ondoren adostutakoak	
• Telegram taldea sortu, euskara ikasten dabiltzanei informazioa bidaltzeko: kultura arloko albisteak, euskararekin lotutako baliabideak...	Kultura teknikariak. Bidali daitezkeen edukiak talde eragilearen laguntzaz pentsa daitezke.

3. erronka: Euskaldunen ahalduntzean eta aktibazioan eragitea	
ZER EGIN DEZAKEGU?	**NORK / NOLA**
• Hizkuntza-irizpide batzuk adostu herriko elkarte guztientzat, herri mailako protokoloa eratu, denok modu berean kudeatzeko hizkuntzak, euskara erdigunean jarriz.	Aurkezpen publiko bat egingo genuke, indarra adieraziko genuke: “Seguran horrela jokatuko dugu” .

	Protokoloari lotuta logotipo bat ere sor daiteke, euskarari lotutako gauza guztietan agertuko dena.
• Elkarteen hornitzaileak, zerbitzuak, aseguruak, mediku azterketak… euskaraz izateko lanketa koordinatzea, Udalak dagoeneko egin duen bidetik.	Arlo garrantzitsuenetan zerbitzua euskaraz jasotzeko Udalak nora jo duen partekatu daiteke elkarteekin.
• Euskara elkartearen aurrez aurreko Miñaripe jolasa berreskuratzea.	Momentu honetan elkartea ez dago indartsu. Egoera aldatzen bada, berrartzeko moduko egitasmoa. Hala ere, Herri Eskolan, Gaztelekuan eta udaleku irekietan sustatu daiteke.

4. erronka: Herriko eragileen artean harremana indartzea, elkarlana sustatzea eta sinergiak sortzea	
ZER EGIN DEZAKEGU?	**NORK / NOLA**
Talde eragilean parte-hartze saioen ondoren adostutakoak	
• Euskara batzorde bat artikulatzeko pausoak eman.	Herriko elkarteen protokoloa eratzen denean, elkargune baten funtzionamendua adostu daiteke: elkarteek ordezkariak izendatu eta tarteka biltzeko konpromisoa hartu.

<u>Herritarren ekarpenak jaso ondoren, plan estrategikoan ekintza hauek sartzea adostu da:</u>

1

Formazio soziolinguistikoa eskaini haurrekin harremana duten herriko eragile garrantzitsuenei: guraso elkartea, futbol taldea, pilota eta dantza

2

Herri mailako protokoloa eratu, eragileen artean hizkuntza-irizpideak adosteko eta euskara sustatzeko sinergiak sortzeko. Protokoloaren baitan, elkargune baten funtzionamendua adostu.

3

Udaleko harrera protokoloaren baitan, harrera linguistikoa nola egingo den zehaztu.

4. Orain arteko plangintzaren balorazio kualitatiboa

Familia transmisioa

Euskara transmititzearen garrantziaz kontzientziatzeko hainbat ekintza egin dira, hala nola UEMAren Hedatu hezkuntza-proiektuaren baitan, urtero egiten da LH 2ko ikasleekin eta beraien familiekin hizkuntza ohiturei buruzko Ispiluari Begira tailerra. Horrez gain, eskolako aurrematrikulazioan gurasoen hizkuntza-profila jaso da urtero, guraso-tipologien berri izateko. Hala ere, gurasoen kontzientziazioan eragiteko behar handiagoa sumatu da, eta guraso elkartearekin lanketa egingo da, besteak beste, familientzako saioak antolatzeko.

Irakaskuntza

UEMAren bidez, Laiotz eskolako irakasleek hainbat formazio jaso dituzte azken urteetan, eta ikasleekin ere tailerrak egin dira. Gainera, ikasleekin lantzeko materiala -unitate didaktikoak- ere eskaini zaio eskolari, ikasleekin kontzientziazio soziolinguistikoa lantzeko. Horrez gain, 2020-21 ikasturtean LHko ikasleen jolas-orduko euskararen erabilera neurtu zen, eta elkarrizketen % 96,8 izan ziren euskaraz. Aurki beste neurketa bat egitea ondo legoke, planari lotutako parte-hartze prozesuan herritarrek umeen euskararen erabilerarekin agertu duten kezkak zer oinarri izan dezakeen ikusteko.

Euskalduntzea

Segurako Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak eskaintzen ditu, eta herrian bertan euskara ikasteko aukera dago. Bestalde, bizilagun berrientzako harrera-eskuorriak daude sortuta hainbat hizkuntzatan, eta bertan euskararen garrantziaz eta ikasteko dauden aukerez azalpenak ematen dira.

Merkataritza eta ostalaritza

Segurako merkataritza eta ostalaritza erdaldundu egin dira azken urteotan, eta euskaraz ez dakien gero eta langile gehiago dago bai taberna bat komertzioetan. Gainera, turismoak badu indarra Seguran, eta horrek ere izan du bere eragina hizkuntzan. UEMAk bi kanpaina egiten ditu urtero sektorean euskararen erabilera sustatzeko, eta itzulpen zerbitzua ere eskaintzen die establezimenduei, eta zerbitzu horren berri emateko bisitak egin izan dira.

Aisia eta kirola

Aisiari dagokionez, Segurako elkarte gehienek euskaraz funtzionatzen dutela esan daiteke, beraz, alor honetan egoera ona da. Hala ere, bereziki haurrekin harremana duten herriko eragileekin arretaz zaindu beharreko gaia da, eta lehentasuna izango da elkarte horiekin lanketak egitea.

Administrazioa

Udal barruko euskararen erabilera areagotzeko plana du Segurako Udalak, eta urtean hirutan egiten zaio jarraipena. Udal barruko egoera ona da, eta Bikain ziurtagirira lortu zuen 2019an. Hala ere, zerbitzu eta kontratazioetako hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipena egitea hobetu behar da.

4. AROA 2024-2034

4.1. Nahi estrategikoa, misioa eta ikuspegia

4.1.1. Misioa

Segura euskal hiztun kontziente eta aktiboak dituen herria izatea, euskararen erabilera handitzeko.

4.1.2. Nahi estrategikoa

Segurako eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datozen urteetarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko eta Segura euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

4.1.3. Ikuspegia

- Seguran euskararen transmisioa bermatuko da.
- Euskararen ezagutza eta erabilera areagotu egingo dira.
- Hizkuntza portaera kontzienteak dituen euskal komunitate bizi eta indartsu bat izango dugu.
- Euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu Segurako gizarte esparru guztietan.
- Euskara bihurtuko da Segurako komunitateko kide izateko bidea.
- Segurara datozen biztanle berriek bisitariek nabarituko dute Segura euskaraz bizi dela.

4.2. Ardatz estrategikoak, erronkak, lan ildoak, ekimenak eta ekintzak

		DATA	Arduraduna(k)	Adierazleak
1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: GOBERNANTZA				
ERRONKA	**G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.**			
Lan-ildoa	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.			
Ekimena	G.1.2.1. UEMAren eta udalaren arteko elkarlana bultzatu.			
Ekintza	Udalarekin elkarlanean aritu AROA planaren jarraipena egiteko	urtero, jarraia	Udala-UEMA	bileren aktak
Ekintza	UEMAren plan estrategikoa eta Udaleko plan estrategikoa bateratu elkarren osagarri izan daitezen.	urtero, jarraia	Udala-UEMA	plan estrategikoa
Ekimena	G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.			
Ekintza	Herriko euskalgintzako eragileekin koordinatu eta elkarlanerako ildoak zehaztu.	urtero, jarraia	Udala-UEMA-Hitz edo irri, euskaraz elkarri	adostutako plangintza
Ekintza	Euskara arloko protokoloaren baitan, elkargune baen funtzionamendua adostu.	2026tik aurrera	Udala-herriko eragileak	Elkargunea sortu da? Bilera kopurua
Lan-ildoa	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.			
Ekimena	G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.			
Ekintza	Udalaren Erabilera Plana bete	urtero, jarraia	Udala-UEMA	erabilera plana
Ekintza	Herri mailako protokolo bat eratu, eragileen artean hizkuntza irizpideak adosteko eta euskara sustatzeko sinergiak sortzeko.	2016tik aurrera	Udala-UEMA-euskalgintza	
Ekintza	Plan eta proiektuen jarraipena egin, eta ELE egingo zaiela ziurtatu.	urtero, jarraia	Udala-UEMA	egindako ELEak
ERRONKA	**G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.**			
Lan-ildoa	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.			
Ekimena	G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia…) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz.			

Ekintza	Ikastetxeekin etengabeko harremana izan, euskararen erabilera sustatzeko dituzten behar eta hutsuneei erantzuteko eta estrategiak elkarrekin lantzeko.	urtero, jarraia	Udala-UEMA	bilerak/mezuak/deiak
2.ARDATZ ESTRATEGIKOA: JARRERA / MOTIBAZIOA				
ERRONKA	**JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.**			
Lan-ildoa	JM.1.2. Gizartea aktibatzeko esperientziak indartu eta hedatu.			
Ekimena	JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu.			
Ekintza	Lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak sustatu: Egin Nirekin euskaraz…	urtero, jarraia	Udala-UEMA	kanpaina
Ekintza	Gizartea aktibatzeko ekimenak lagundu (Euskaraldia, Korrika)	urtero, jarraia	Udala-UEMA	lagundutako ekimenak
Lan-ildoa	JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.			
Ekimena	JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu.			
Ekintza	UEMAren HEDATU proiektuaren bidez, ikastetxean formazioak eman irakasle, guraso eta haurrentzat, besteak beste arnasguneen eta hizkuntza jarreren inguruko sentsibilizazioa lantzeko.	urtero, jarraia	UEMA	formazio saioak eta parte hartzea.
Ekintza	Formazio soziolinguistikoa eskaini haurrekin harremana duten herriko eragile garrantzitsuenei: guraso elkartea, futbol taldea, pilota eta dantza.	urtero, jarraia	UEMA	formazio saioak eta parte hartzea.
Ekintza	UEMAren Salto! Udaleku ibiltaria antolatzen jarraitu.	urtero, jarraia	UEMA	parte hartze datuak
Ekintza	Arnasguneen eta udalerri euskaldunen errealitatearen eta garrantziaren gaineko kontzientziazioa landu	urtero, jarraia	UEMA	formazioak, parte hartzea eta asebetzea
Ekintza	Herritar euskaldunak ahalduntzeko eta kontzientziatzeko egitasmoak abiatu: Arnasa Gara…	urtero, jarraia	UEMA	egitasmoak
ERRONKA	**JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.**			
Lan ildoa	JM. 2.2. Gizartea aktibatzeko esperientziak indartu eta hedatu.			
Ekimena	JM.2.2.5. Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi.			
Ekintza	Bisitariei euskararen berri emateko eta euskara partekatzera animatzeko lanketak egin.	urtero, jarraia	Udala-UEMA	Euskarrietara bisita kopuruak
Ekintza	Bisitarien guneetan euskarari buruzko informazioa, herriko euskara, historia… eskaini. Euskara herriko ondare inmateriala dela nabarmendu.	urtero, jarraia	Udala-UEMA	Euskarriak
Lan-ildoa	JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.			
Ekimena	JM.2.4.1. Euskaratik urrun daudenen pertzepzioetan sakondu.			

Ekintza	Erdaldunei euskararen inguruko saioak eskaini, hizkuntza aniztasunari, euskararen egoerari eta arnasguneen garrantziari buruzko informazioa jaso dezaten eta euskararekin duten harremanari buruz hitz egin dezaten, aurrera begira baliabideak eta tresnak eskaintzeko.		UEMA	Formazioak
Ekimena	JM.2.4.4. Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.			
Ekintza	Udaleko harrera protokoloaren baitan, harrera linguistikoa nola egingo den zehaztu	urtero, ja-rraia	Udala-UEMA	Baliabideak/parte hartze datuak
Ekintza	Eskolei harrera programak antolatzeko laguntza eskaini	urtero, ja-rraia	Udala-UEMA	Baliabideak
3.ARDATZ ESTRATEGIKOA: EZAGUTZA / GAITASUNA				
ERRONKA	**EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.**			
Lan-ildoa	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.			
Ekimena	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharraren araberako eskaintzak sortu.			
Ekintza	Herrian taldea sortzeko laguntza eta baliabideak eskaini.	urtero, ja-rraia	UEMA-Udala	Euskalduntze datuak
ERRONKA	**EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.**			
Lan-ildoa	EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.			
Ekimena	EG.3.1.2. Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu dezaten aukerak erraztu.			
Ekintza	Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan (udalekuak, kirola…) parte har dezaten sustatzeko praktika onak bildu	urtero, ja-rraia	UEMA	Parte hartze datuak
4.ARDATZ ESTRATEGIKOA: ERABILERA / ELKARRERAGINA				
ERRONKA	**EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.**			
Lan-ildoa	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu			
Ekimena	EE.1.1.1. Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.			
Ekintza	Haurrei euskaraz egitearen garrantzia nabarmentzeko ekimenak martxan jarri	urtero, ja-rraia	Udala-UEMA	Baliabideak
Ekintza	Ikasleen gurasoen hizkuntza profilak jaso, guraso eta familia tipologien berri izateko eta bilakaera aztertzeko.	urtero, ja-rraia	UEMA	Datuen bilakaera
Ekintza	Abizenak euskalduntzeko kanpaina	2025	UEMA	Abizena euskaraz jarri dutenen kopurua

Ekimena	EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.			
Ekintza	Merkataritzan eta ostalaritzan, euskararen erabilera sustatzeko kanpaina egiten jarraitu: sentsibilizazioa (eskuorriak, mahai gainekoak) eta itzulpen zerbitzua eskaini	urtero, jarraia	UEMA-Udala	Merkataritza-ostalaritzako hizkuntza paisaia datuak
Ekintza	Banketxeekin hitzarmenak egin eta horietan euskararen erabilera bermatu	urtero, jarraia	UEMA	Datuen bilakaera
Ekintza	Bi urterik behin, anbulatorioko langileen hizkuntza ezagutzaren azterketa egin.	2 urterik behin	UEMA	Datuen bilakaera
Ekimena	EE.1.1.5. Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.			
Ekintza	Euskarazko zinema emanaldiak lehenesteko lanketak egin	urtero, jarraia	Udala-UEMA	Euskarazko zinema emanaldien datuak
Ekimena	EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.			
Ekintza	Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina egin	urtero, jarraia	Udala-UEMA	Errenta aitorpena euskaraz egin duten %aren bilakaera
6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA				
ERRONKA	**IS.1.Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.**			
Ekintza	UEMAko ikerketak herriratu	urtero, jarraia	Udala-UEMA	
7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA				
ERRONKA	**KH.1.Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu**			
Ekintza	UEMAk egiten duen lanaren berri eman eta hartzaile motaren arabera egokitu.			